Laburpena

Osasuna eta Burujabetza

BAM!
burujabetzaren aldeko mugimendua

Sarrera: Zergatik da beharrezkoa eztabaida hau?

Sistema ekonomiko kapitalistak gaixotasuna sortzeaz gain, osasuna espekulaziorako eta irabazirako merkantzia ere bihurtu du, ondasun unibertsal gisa zuen jatorrizko kontzeptutik urrunduz. Duela 6 urte Covid-19ak eragindako osasun-larrialdiko eszenatokiak izugarri bizkortu zuen merkantilizazio-prozesu hori, industria farmazeutikoari onura ekonomiko handiak ekarriz osasun publikoaren kontura.

Osasuna eta gaixotasuna ez dira izaera indibidualeko arazo biologikoak, bizi-baldintza materialen (elikadura, lana, ingurune naturala eta aisialdia) emaitza baizik. Baldintza horien etengabeko prekarizazioaren aurrean, osasuna burujabetzatik, antikapitalismotik eta borroka komunitariotik birpentsatzeko premia larria sortzen da, langile-klasearen benetako osasun-beharrak lehenetsiz eta merkatuaren logiketatik behin betiko urrunduz.

Helburua: zer proposatzen dugu eztabaida honetan?

Langile-klasearen baldintza materialetan zentratutako eta komunitatean zein zaintzan oinarritutako osasun-paradigma berri bati ekiteko beharra proposatzen dugu, egungo osasun-paradigmari (farmakoan, ospitale erraldoietan, bizitzaren medikalizazioa eta osasunaren ikuspegi indibidual hutsean zentratua dagoena) kontrabotere gisa (politiko eta ideologiko) balioko diona.

Osasun eremuan paradigma berri bat ezartzea, jakina, epe luzerako prozesua da, ideologiaren sorkuntzan, borroka komunitarioan (sare aktibistak sortzea) eta elkartasunean oinarritua. Horretarako, etorkizunean, helburu horri forma emango dion antolamendu-egitura bati ekin beharko zaio.

“Osasuna eta Burujabetza” dokumentuaren ideia nagusiak:

- **1. Covid-19 eszenatokiaren kudeaketa:** Kudeaketa horren ezaugarri nagusiak autoritarismoa, zentsura eta kontraste zientifiko nahikorik gabeko txerto genikoen (ARNm) inposizioa izan ziren, beste alternatiba batzuk baztertuz. Osasun-larrialdi bat osasunarekin zerikusirik ez zuten beste helburu batzuk (ekonomikoak, politikoak eta ideologikoak) lortzeko erabili zen. Era berean, osasun-sistema publikoa nola kolapsatu zen ikusi ahal izan zen, eta horrek aseguru pribatuen aurrekaririk gabeko gorakada eragin zuen.

- **2. Osasunaren Negozioa:** Multinazional farmazeutikoak (Big Pharma) osasunaren merkatu globala menderatzen duen oligopolioa dira, ustelkeria sistemikoaren, patenteen kontrolaren eta agentzia arautzaileen manipulazioaren bidez. Haien estrategia nagusia "bizitzaren medikalizazioa" da: gaixo kronikoak sortzea, bizi osorako farmako-kontsumitzaileak ziurtatzeko.

- **3. Pribatizazioa eta Merkantilizazioa:** bi kontzeptuak modu bereizian aztertzen ditugu. Pribatizazioa irabazi koiunturaleko prozesu gisa (funts publikoak eremu pribatura etengabe bideratzean oinarritua, esleipenetan iruzurra eginez eta kanporatze-politika estentsibo baten bidez). Merkantilizazioa desjabetze-prozesu estruktural gisa, osasungintza publikoan enpresa-logikak eta metrikak aplikatuz, ezagutza zientifikoa pribatizatuz edo bahituz (patenteak) eta prozesu naturalak (zahartzea, dolua, tristura) patologizatuz. Horrela, osasungintza errentagarritasunaren arabera gidatzen da, eta ez zaintzaren arabera. Hau da, osasuna estatuak bermatutako ondasun publikoa izateari uzten dio eta ordaintzeko gaitasunaren mende egotera pasatzen da. Ordaindu ezin dutenek arreta duinik gabe geratzen dira (desjabetuak).

- **4. Osasuna eta Burujabetza: paradigma berri bat:** Osasunean alternatiba antikapitalista eta komunitario bat eraikitzea proposatzen da, hiru zutabetan oinarrituta:
  - **Desazkundea:** Gehiegizko medikalizazioa eta osasun-sistemaren aztarna ekologikoa murriztea.
  - **Komunitatea:** Elkarrekiko laguntzarako tokiko sareak, prebentzio-medikuntza eta jakintza tradizionalen berreskurapena sustatzea.
  - **Langile-klasea:** Gaixotasunaren benetako arrazoiei heltzea (prekarietatea, estresa, genero- eta klase-esplotazioa), berreskuratze fisiko eta mentalerako "denbora erreproduktiboa" aldarrikatuz.